



**Arartekoaren ebazpena, 2011ko martxoaren 31koa. Horren bidez, Karrantzako Udalari gomendatzen zaio epean erantzun dezala egindako hirigintzako kontsultari.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek esan digu haren jabetzako lurzatiei eta Aldeacueva gunean Karrantzako arau subsidiarioen egoerari buruzko hirigintzako informazio-eskaera bati ez zaiola erantzunik eman.

Eskaera hori 2010eko urtarrilaren 7an aurkeztutako idazkiaren bitartez formalizatu zen. Ondoren, 2010eko ekainaren 1ean erreklamatzailleak informazioa bidaltzeko berriro eskatu zuen eta, bide batez, administrazio prozedurari buruzko legerian ezartzen den epea soberan pasa zela aipatu zuen. Bigarren idazki horretan erantzuteko gehienez hilabeteko epea dagoela planteatu zuen eta ebazteko betebeharra gogorarazi zuen. Erantzunik jaso ez zuenez, 2010eko irailaren 21ean eskaera berriro egin behar izan zuen.

2. 2010eko abenduaren 10ean erreklamatzailleak Ararteko erakundera jo zuen jakinarazteko, denbora asko igaro bazen ere, oraindik ere ez zuela erantzunik jaso, beraz, erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen.

Erreklamazio hori izapidetzeko onartuta, 2010eko urtarrilean Karrantzako Udalarekin harremanetan jarri ginen egindako eskaeraren erantzunaren gaineko informazioa eskatzeko.

Denbora-tarte bat igaro dela kontuan hartuta, udaleko zerbitzu teknikoen aurrean berriz ere adierazi dugu kontu horren inguruko interesa dugula eta bertan esan digute egia dela ezin izan zaiola erantzunik eman erreklamatzaillearen eskaerari administrazio zerbitzuaren funtzionamenduan antzemandako arazoengatik.

Aipatu beharra dago, ebazpen hau egin dugunean oraindik ere ez dugula erantzun horren baieztapenik jaso.

Informazio hori zein kexagileek aipatutako gainerako inguruabarrak ikusita eta horien edukia aztertu ondoren, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut.





## Gogoetak

1. Kexa hau erreklamatzailerak Karrantzako Udalaren aurrean egindako hirigintzako kontsultari erantzun ez zaiolako aurkeztu da.

Zehazki, eskaerak honako hau dauka hizpide: Aldeacuevako lurzatietako 1a. eremuko (...) eremuko b. zk.ko lurzatien inguruko hirigintza-informaziorako sarbidea.

Ararteko erakundeak aurrekarietan azaldutako kudeaketak egin ondoren, ikusi du ez dagoela kexagilearen asmoari emandako erantzunik.

2. Abiaburu gisa, gogoratu behar dugu interesdunek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela herri-administrazioek.

Aipatu behar dugu administrazio horrek behar bezala izapidetu behar dituela herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Era berean, esan behar dugu, ebazteko epea amaitu arren, erantzun beharrak irauten duela, eta ebazpena eman behar duen organoaren titularrari diziplinako erantzukizuna sortu ahal diola.

3. Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasunak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

Herritar horien erreklamazioen aurrean instrukzioko izapide egokiak ez egitea eta administrazioaren erantzunik ez izatea ez da administrazioaren funtzionamendu normala, hortaz, Ararteko erakundeak hala adierazi behar du.

Prozedura izapideak existitzearen eta herritarrei benetako erantzuna ematearen bermea Espainiako Konstituziotik eratortzen da

-103.1 eta 105. artikulua-, herritarrek administrazio ona edukitzeko duten eskubidean txertatzen dena. Eskubide hori Europako Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan aipatzen da, Europarentzat Konstituzio bat finkatzen duen itunak hor sartu zuena.





Aitzitik, administrazio txarraren kasu bat da artikulu hauetatik ondorioztatzen den ardura funtzionaleko betebeharra ez betetzea, zehazki, ondokoak ez betetzea: erreklamazioa jaso dela adierazteko betebeharra; zerbitzu eskudunari bidaltzeko betebeharra, eta arrazoizko denbora-epean erantzuteko betebeharra.

4. Hizpide dugun kasuari dagokionez, hirigintzako informazio-eskaerak Lurzoruari buruzko ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 4 d) artikulua aipatzen du. Horren bidez, lurzoruari buruzko testu bategina onartzen da eta bertan herritarrek duten eskubidea ezartzen da, alegia, *"administrazio eskudunaren bitartez, idatziz eta arrazoizko epean, finka jakin bati aplikatu ahal zaizkion hirigintzako baldintzen eta erregimenaren inguruko informazioa jasotzeko eskubidea, lege arautzaileetan xedatutakoarekin bat etorriz"*.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak jendaurreko informazioaren printzipioa barne hartzen du. Horren arabera, herri-administrazioek higiezin zehatz bakoitzari aplikatu ahal zaion hiri antolamenduaren ziurtagiriak edo ziurtagirien kopiak egin behar dituzte.

Hirigintzako legeek ez dute ebazteko eperik ezarri. Ildo horretan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3. artikulua jasotzen duen epea, alegia, hiru hileko epe orokorra, aplikatzen da.

Hirigintzako informazioa eskuratzeari dagokionez, erantzunaren administrazio eginbidea funtsezko premisa da parte hartzeko gainerako eskubideak baliatu ahal izateko.

Kexa-espeditente honetan agerian jarri den bezala, hamalau hilabete baino gehiago pasa eta gero ez da inolako erantzunik jaso.

Gauzak horrela, udal administrazio horrek ez du bete erreklamatzailerak hirigintzako informazioa eskuratzeko duen eskubidearen ondoriozko eginbeharra.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendio hau egiten da:

#### **4/2011 GOMENDIOA, martxoaren 31koa, Karrantzako Udalarari eginda**

Oraindik erantzunik bideratu ez bada, berehala erantzun diezaiola erreklamatzailerak egindako hirigintzako informazio-eskaerari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

